

## EUSKAL ONOMASTIKA ETA EGUNGO LEGERIA-RI BURUZKO III. JARDUNALDIA (\*)

2000-IX-28

*San Fermin Ikastola. Zizur Txikia.*

*Andres Iñigo,*

*Nafarroako ordezkaria*

### **Aurkezpena**

Zaretela ongietorriak!

Hartu berri duzuen eskutitzean jartzen zitzaizuen bezala, San Fermin ikastolak gonbidatuta, antolatu ditu Euskaltzaindiak bi egunetako jardunaldiak egoitza honetan.

Asko dira Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkarietara, ia egunero, iristen zaizkigun kontsultak, bertzeak bertze, izen eta deituren aldaera ofizialaz eta grafia zuzenez galdezka. Hori dela eta, Euskaltzaindiak bere presentzia aprobetxatu nahi izan du, bere bi batzorderen lana elkartzuz –Onomastika eta Sustapen batzordeena, alegia– “Euskal onomastika eta egungo legeria”-ri buruzko III. Jardunaldi hau antolatzeko, oraingo honetan, Nafarroako bake-epaitegi, udaletxeetako idazkari eta mankomunitateetako euskara teknikariei zuzendua.

Bi hitzaldi eskainiko dizkizuegu:

— Andres Urrutia, euskaltzain osoa, Sustapen bartzordearen buru –eta ogibidez notarioa–, “Euskal izen eta deiturak: grafia eta legea” izenburuztat duen gaiaz arituko zaigu.

— Mikel Gorrotxategi, euskaltzain urgazlea eta Onomastika batzordearen idazkaria “Deiturak normalizatzeke irizpidez”.

Amaieran, bi hitzaldi hauen txosten osoak banatuko zaizkizue.

---

(\*) Gai honetaz lehen Jardunaldia Bilboko Justizia Jauregian eta II. Jardunaldia Donostia-ko Justizia Jauregian burutuak izan dira.



### III JORNADA SOBRE LA ONOMÁSTICA VASCA EN EL MARCO DE LA LEGISLACIÓN VIGENTE (\*)

*San Fermin Ikastola. Zizur Txikia.  
28-IX-2000*

*Andres Iñigo,  
Delegado de la R.A.L.V./Euskaltzaindia  
en Navarra*

Nuestra bienvenida a todos los aquí presentes.

La Onomástica, ciencia que trata de los nombres, es algo inseparable de la historia de un pueblo, de la vida de sus personas, dado que los nombres nos están hablando de las personas y de los lugares, de los agentes y del escenario de la cultura de un pueblo.

En el caso de Navarra, la Onomástica vasca adquiere, además, un interés especial porque es el único testigo que nos queda del pasado euskaldún de una parte considerable de su territorio y, por ello, viene a ser como la seña de identidad del ser y de la cultura de una gran parte de nuestra Comunidad.

En la población navarra, tras el período franquista, en no más de dos décadas, se ha producido un vuelco espectacular en dos campos de la Onomástica:

a) Por una parte, en la imposición de los nombres de pila. En amplias zonas de Navarra, los primeros puestos ocupados por nombres como José Luis, Francisco Javier, José María, José Antonio... han cedido su lugar a nombres como Mikel, Iñigo, Jon, Xabier..., lo mismo que María del Carmen, María Jesús, María José, Teresa... a Amaia, Leire, Ainhoa, Miren, etc.

b) Por otra parte, la identificación creciente con su propia cultura está llevando a muchos navarros a solicitar la adaptación ortográfica de sus apellidos a la gramática o fonética de la lengua correspondiente, en nuestro caso del euskera.

De todos estos cambios tenemos constancia diaria:

— Nosotros en la delegación de Euskaltzaindia, por ser la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por tanto, la que tiene que dictaminar.

---

(\*) I Jornada: Palacio de Justicia en Bilbao.

II Jornada: Palacio de Justicia en Donostia/San Sebastián.

— Y ustedes que, por su profesión o cargo, les corresponde tramitar o autorizar las inscripciones de los correspondientes nombres y apellidos.

Siendo la Onomástica una parte de la lengua, a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia le corresponde, por principio, estudiar, investigar y normativizar la Onomástica, al igual que lo hace con otros contenidos de la lengua, como la gramática, el léxico, la ortografía, etc.

Son muchas, prácticamente diarias, las consultas que se reciben en la delegación de Euskaltzaindia en Navarra referentes a las formas oficiales de nombres y apellidos y a la correcta grafía de los mismos. Por ello, Euskaltzaindia, aprovechando la invitación de la Ikastola San Fermín con motivo de la celebración aquí de la edición del Nafarroa Oinez, 2000, ha considerado oportuno incluir en el programa de actos académicos esta III Jornada sobre la “Onomástica vasca en el marco de la legislación vigente” —organizada de modo conjunto entre sus comisiones de Onomástica y de Status de la lengua— y dirigida, en esta ocasión, a las personas que por su oficio o cargo tienen relación directa con el tema, a saber: registros civiles, juzgados de paz, secretarios de ayuntamientos y técnicos de euskera de mancomunidades de Navarra. Las invitaciones cursadas han superado la cifra de 300.

Se les ofrecerán dos ponencias:

— Andres Urrutia, académico de número y presidente de la comisión de Status —notario de profesión—, desarrollará el tema “Nombres y apellidos vascos: grafía y ley”.

— Mikel Gorrotxategi, académico correspondiente y secretario de la comisión de Onomástica, expondrá los “Criterios de normalización de apellidos”.

A continuación, se dará paso a un coloquio entre los asistentes.

Al final se les facilitarán los textos íntegros de ambas ponencias.

## **BAKE JUSTIZIA ETA EUSKAL IZEN-DEITURAK: ohar laburra**

2000-IX-28

*Mikel Gorrotxategi, euskaltzain urgazlea  
Andres Urrutia, euskaltzain osoa*

Euskalgintzaren premiak non eta hara hurreratu da Euskaltzaindia, sortu zenetik bertatik. Joan ere, urte asko joan dira bere egitekoari eutsi zionetik euskararen Akademiak. Artean, erregimen politiko desberdinak, osterantzeko legeak... denetarik izan da Euskaltzaindiaren historian, modu askotakoak baitira horren kezka eta lan nagusiak, betiere, euskara eta euskalgintzaren ingurukoak.

Aspaldiko arrangura zuen Euskaltzaindiak euskarazko izen-deiturena. Aspaldikoa eta premiatsuen, egunean-eguneangoak ikusi behar izan dituelako Euskaltzaindiak, bakoitzak bere erara erabilita izen-deitura horiek, euskararen erregela eta bizimoduari begirunerik nemiñoena ere erakutsi gabe.

Legeak horretarako biderik ez zuela ematen, norberekeriak sustrai zabalakoak izan eta horra hor, euskararen kalterako, euskaldunon izen-deiturak nolanihi eta gurakeriara plazaratuak.

Legeak lege, 1999. urteko lege berriak eta horren araudiak ahalbideratu dute, Hego Euskal Herrian bederen, euskarazko izen-deiturak euskal ortografia duinez jantzi ahal izatea. Hartara, euskaldunok nora joan behar eta Bake Justizia erabakigarri. Zehatzago esanda, Erregistro Zibilaren ardura dutenek legezko hitza halakoetan. Bestelakoa, hau da, hizkuntzarena, Euskaltzaindiari dagokio aspalditik.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saila eta Euskal Herriko Bake Epailen Elkartea tartean, berebiziko ahalegina egin du Euskaltzaindiak, Bilbon eta Donostian, Erregistro Zibil horietan arduradun direnekin batu eta izen-deituretan zeresana duten bi horiek uztartzeko: euskal onomastika eta Erregistro Zibila. Aurtengo martxoaren 11n Bilboko Justizia Jauregian, maiatzaren 6an orobat Donostiako Justizia Jauregian, eta irailaren 28an Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan, hizlari aritu dira Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen idazkaria eta Andres Urrutia, Jagon Saileko Sustapen batzordea-

ren burua, bi gaiok azaltzeko. Eurokin batera, Bilboko Erregistro Zibilaren arduraduna, Alicia Sanchez Sanchez epaile andrea eta Donostiako Lehen Instantziako Epaitegiaren idazkaria, Rosa Violet Vazquez ere hizlari ibili dira, lege-eraldaketa berriaren nondik norakoak azaltzen, legea eta euskararen ildok parekatsu joan daitezten. Eskertzekoa ere Inmaculada de Miguel Herran andrearen ahalegina, Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaria den aldetik, aldioro erraztu baitu ekimen berri honen aukera.

Jakingura zabala sortu du eskaintza horrek entzuleen artean eta hiru lurraldeotako Erregistro Zibilaren arduradunek arreta handiarekin hartu dituzte azalpenak, legeria berriari buruzko galderak barra-barra eginez.